

AURKEZPEN TXOSTENA

branca



ASMOA



Branca

Familiendako ikuskizuna, 4 urtetik goiti
Hitzik gabekoa, antzerkia eta objektu dantza

Harremanak (ber-)-piztu

Hitzik gabeko ikuskizun hau, mugaz gaindiko proiektua da :
pertsonek arteko, eta orokorki kulturen arteko bake lotura
uztartzeko du.

Branca-k giza kultur harremanen bilakaera aipatzen du,
gaurko gizakia, eta Natura bere jatorriaren arteko lotura or-
ganikoaren bidez.

Nicolas Julian aktore, dantzari eta taula zuzendari : Idazlea,
taula zuzendaria eta antzezlea

Imanol Espinazo, aktore eta taula zuzendari : antzezlan la-
guntzak,

Corine Cella, zirku-dantzaria: itxura koreografikoa

SORKUNTZA TOKIAK

 dantza
gunea



L'ESTRUCH

FÀBRICA DE CREACIÓ DE LES ARTS EN VIU

Ajuntament  de Sabadell

**HA
ME
KA**

LA BALEINE

hendaye
 hendaia

Frantzia :

Hameka, Fabrique des arts de la rue, Louhossoa (64), Euskal Herria

Espace Culturel Mendi Zolan – Hendaia (64), Euskal Herria
La Baleine, Plaisance du Touch (31), Occitanie

La Filature du Mazel, Notre dame de la Rouvière (30), Occitanie

Beste nonbait :

Djaram'Arts Kultur Zentroa, Ndayane, Senegal

L'Estruch à Sabadell, Katalunia, Espainia

Dantzagunea à Errenteria, Euskal Herria, Espainia



TAULARATZEA



Gorputz eta naturaren hizkuntza unibertsalak : gizon bat eta adar bat.

Eszenografia honetan, non osagarri bakarra - bazkide adar bat den, gorputzaren hizkuntza dantzan jartzen da, keinu antzerkian eta objektu antzerkian ere.

Publikoa, bidaia emozionala, sentikorra, organikoa eta interaktiboa bizitzea gomitatua da.

Brankak, beraz, bakoitzaren baitan, lotura sensible bat josten du.


Branca-ri buruz, idazle eta dantza-terapista Carine Anselme-k idatzi zuen :

«Gorputz akordio batean, maitaleek elkarri lotzen dute. Hizkuntza unibertsal bat hitz egiten dute biek : larruaren azalarena, hitzik behar ez duena. Beren elkarrizketa, dantza bihurtzen da. Gizona adar hori da. Uholdeen adar bat bezala malgua izaten da, baina zoritxarrean, haritzaren zurruntasuna izan dezake ! Bere kanpoko batailak, barneko borroken isla dira. Askotan, bera bihurtzen da bere makila, jipoitu egiten duena. Denborak aurrera egin ahala, naturarekin adiskidetu eta bateratzen da.

Orduan, gizon-adarra beste ezagutza emankorrendako prest dago. Ibiltari makila eskutan hartu, eta harro, aurrera doa bere bidetik.»



SORKUNTZA TALDEA



Nicolas Julian, 1977an jaio zen, eta 2004tik goiti, antzezle eta dantzari profesionala da, baitaikuskizunen sortzailea, taula zuzendaria eta pedagogo. Gaur egun, Branca Konpainia-ren sortzailea da. Tolosako Haurrentzako Ospitalearendako, ikuskizunak sortzen ditu, beste profesionalekin, eta interpretatzailea da ere.

Zazpi urtez zuzendu du, beste batekin, «Les Petits Chemins» Konpainia, eta bertan hiru ikuskizun sortu ditu, besteak beste, «Sur les flots», (antzerkia, dantza, musika eta objektu antzerkia) 6 hilabetetik 6 urterainoko umeentzat, 200 aldiz baino gehiagotan jokatu izan dena, baita ere «La Dune dans nos valises» eta «Je viens avec toi».

Bere lehen antzerki formakuntza, talde eta perstona ezberdinekin osatuz joan da, hala nola : Lohengrin Konpainiarekin Tolosan, «l'Oeil du Silence» taldearekin Cahors-en, baita Claire Heggen eta Yves Marc “Théâtre du Mouvement” Parisen. Dantza garaikideari eta Alexanderko teknikariari aldi berean foramtzen da.

Gorputzaren hizkuntza eta bidaiak azterketa horien bihotzean daude. Bere ikuskizunek hainbat adierazpen mota nahasten dituzte (antzerkia, dantza garaikidea, objektu antzerkia, txotxongilo, musika ...) gai baten zerbitzura.

Pedagogo, maiz lotzen ditu sorkuntza eta transmizioa.



Imanol Espinoza, antzezlea, taula zuzendaria

Lehen ikasketak «Real Escuela Superior de Arte Dramático» eskolan egin zituen (Madrilen, Espainian), eta gero integratu zuen «Escuela de Teatro mar Navarro y Andrés Hernandez» eskola, Madril-en (Lecoq pedagogia). 2009an, «Movimiento no out» konpainia sortu zuen, mugikortasun urriko pertsonak eta soinu eta ikusmen ezintasunak ikuskizunetara eramateko.

Taula zuzendari bezala, Pablo del Mundillo –ren «El Mundillo Pirata» ikuskizuna (2011-an) zuzendu zuen, baita «Malas PULGAS» konpainiaren «Le Tour du Monde en 80 cm», «El Reencuentro». «La Lavanderia» antzerki eskolan, Madrilen, klaseak eman zituen 2013-an. Era berean, Alexia Papantchev –ekin «Vents et Marées» konpainia sortu zuen. Kanpo begirada eskaintzen ditu «Elle» eta «Origines» ikuskizunetan. «Au bout de la Plage» kaleko ikuskizuna sortzen du. Era berean, «Borobil Teatroa» –ren (Hego Euskal-herrian) ikuskizunetan antzezlea da «Gu ez gaude bakarrik» eta «Ali Baba y los 40 Ladrones». Deneri zabaldua den kalitatezko antzerkiaren defendatzaile sendoa da.



Corine Cella, koreografoa, dramaturgoa

Rouge Elea konpainiaren senean garatzen ditu bere proiektuak egile edo interprete bezala. Zirkoaren dramaturgian formatua da, baita airezko zirku eta dantza garaikidean ere, Marseilan, Rosny-sous-bois, Chalon-en-champagne-n eta Bruselan.

Forma hibrido eta errealitatetik inspiratutakoen sortzaile denetik, etnologian formatua ere izan da GdRa kolektiboko Marc Aubaret-ekin.

Bere piezen sorrerarekin paraleloan beste proiektu batzuekin kolaboratu du dantzari edo kanpo begirada moduan: Compagnie Lunatic, le Trans Express, Archaos, La petite Compagnie Quoi de Neuf Docteur, la chorégraphe Nacera Belaza, Metrokoadroka kolektiboa.

HEZKUNTZA PROIEKTUA



Branca tailerrak

4 urtetik goiti publikoari zuzendua, egun erdiaren gutxiene-ko iraupena.

Naturaren (ber-)aurkikuntza : Branca tailerrek adar biltze une bat proposatzen dute, eta ondoren, ikuskizuna.

Gero, ikasgelan, artista eta publikoaren arteko elkarriketek topaketa hau luzatzen dute.

Bakoitzak adierazteko aukerak ditu orduan.

«Niretzat adar hau da ...»

Branca tailerrak amaituko dira adarrak eta buztinezko sorkuntzak eginez.

[Branca tailerren inguruan informazio gehiago](#)



BRANCA KONPAINIA

Branca, adarra, lotura sinboloa da. Zuhaitza bere adarretatik zabaltzen da, eta bere ingurumena topatzera doa.

Branca konpainia adarretarik hedatzen da, non topaketak, gizabanakoen arteko loturak, eta kulturen artekoak diren zuhaitzaren sustraiak.

Haizeak ditu adarrak dantzan jartzen ...

2017an sortua, konpainiaren asmoa, jendearen eta forma artistiko anitzen topaketak bultzatzea da (antzerkia, dantza, txotxongiloa, arte plastikoak, musika ...), baita kultur eta giza aniztasunean ikusleengana joatea.

Branca konpainiarentzat lan egiten dute :

[Nicolas Julian](#), caktore eta taula zuzendari : sorkuntzak, zuzendaritza artistikoak

Imanol Espinazo, aktore eta taula zuzendari : antzezlan laguntzak

Corine Cella, zirku-dantzaria: itxura koreografikoa

Claire Heggen, Théâtre du Mouvement-ren sortzaile, Parisen : laguntza artistikoak

Francis Ferrie: soinu eta argi sorkuntzak

Christian Durante, zizelkari : sormen pedagogia.

HARREMANAK



Cie
branca

Compagnie Branca
119 place du Port
Espace Culturel Mendi Zolan, Hazi Gazia
64700 Hendaye, Pays Basque, France

www.compagniebranca.com

Facebook & Instagram : @compagniebranca

Nicolas JULIAN
+33 (0)6 61 57 27 91
contact@compagniebranca.com

